

## 4.0 industria-iraultzari aurre egiteko jardunaldia Michel Baudinen eskutik

2015/06/12

4.0 industria ('industria adimenduna' ere esaten zaio) laugarren industria-iraultzat jotzen da. Funtsezko informazioa kudeatuz enpresa erakunde adimendun bihurtzea eta, horri esker, negozio-emaizta hobekia lortzea da horren helburua; hau da, industriaren produkzio- eta logistika-eredua aldatu eta eredu aurreratuagoa eta iraunkorragoa ezartzea. Enpresentzat zer-nolako erronka dakarren jakitun, MONDRAGON UNIBERTSITATEAK "4.0 industria: Lean manufacturinga baino harago. Enpresen arrakasta-adibideak AEBn" izeneko jardunaldia egingo du Bilboko Berrikuntza Gunean, datorren astelehenean, ekainaren 15ean, 17:00etatik 19:00etara. Jardunaldian ikusiko da, gainera, bikaintasunerako errezeta bat baino gehiago dagoela eta erakunde bakoitzak bide-orri propioa behar duela, epe laburreko emaitzez harago, denboran iraunkorrak izango diren emaitzak lortu ahal izateko.

Jardunaldiko partaideek industria adimendunaren gakoak ulertzea du helburu. Adibidez, enpresak nola kudeatu behar dituen bere prozesuak eraginkortasunez, nola erabil daitezkeen IKTak enpresen kudeaketa errazteko, eta nola har daitezkeen erabakiak denbora errealean. Horretaz gain, Estatu Batuetako erreferentziako enpresen kasu arrakastatsuen azalduko dira.

Topagunea kudeatzaileei, eragiketa-zuzendari, produkzio- eta kalitate-alarreko buruei, mantentze-arduradunei eta abarrei bideratuta dago; azken buruan, industria-kudeaketan ardura-postuak dituztenei edota enpresen kudeaketa bikaintasunerantz bideratu nahi duten zuzendari guztiei.

### Nazioarteko aditu ikastaroa

Jardunaldian bertan, MONDRAGON UNIBERTSITATEAK Enpresa Zuzendaritzako Nazioarteko Ikastaroa aurkeztuko du. Aditu programa horrek 120 orduko iraupena du, irailean hasi eta otsailera arte. Negozio-ereduaren gakoak ulertu eta kudeaketa-estrategia egokiak erabiliz, negozio-emaizta onak lortu nahi dituzten zuzendari zuzenduta dago. Programak San Frantziskon eta Seattlen egonaldia hartzen du barne, eta Estatu Batuetako enpresak, hala nola Boeing, bisitatuko dituzte bertan. Horretaz gain, partaideek beren enpresetan ezarri beharreko proiektuak prestatuko dituzte, MONDRAGON UNIBERTSITATEko aditu baten laguntzaz.

### Michel Baudin

1987az geroztik Zuzendaritzako Kontsultoretzan ari da. Kontsultoretzaren alor horretan, Lean Manufacturinga ezartzen lagundu du orotariko enpresetan: aeroespazio alorreko enpresetan, elektronikakoetan, automozioetan nahiz elikagai izoztuen alorretakoetan, AEBn, Hegoamerikan, Europan eta Asian. UC Berkeley Extensioeko, Daytoneko Unibertsitateko eta Hing Kongeko produktibitate kontseiluko instruktorea da. Era berean hainbat liburu tekniko idatzi ditu idazle gisa: Fabrikazio Sistemen Azterketa (1990), Lean Assembly (2002), Lean Logistics (2005) eta Working with Machines (2007). Gaur egun bosgarren liburua idazten ari da, enpresa adimendun alorra aztertzeko: "Manufacturing Intelligence: The art of making factory data talk"

